

Festa-programa larunbatean hasten da. Eguerdiko 12:30ean Triki-Pandero Kalejira Kresala Kultur Elkartearen eskutik . 12:30ean Inauteri Kalejira. Kantaize Orfeoia eta Ondarroako Metal Taldea. Iluntzean Inauteri Zapatu Berezia, gaztelekuan. Arratsaldeko 18:30ean, inauterietako dantza saioak, kalez kale, Artabidetik hasita, Kresala Kultur Elkartearen eskutik. 20:00etan, **LANTZOI JAUNARI ONGIETORRIA**, kalez kale, portutik hasita, Artelan Elkartearen eskutik.

Igandean, 13:00etan dantza-potea, kalez kale, Alde Zaharrear hasita, Itsasaurrerraino. Amaitzeko, bazkaria Beikozinin. 18:00etan gozatu ahal izango da Sasoiko dan-tzak eta datza latinoak. 18:00etanan-tzezlana, Bide Oneran zine aretoan.

Asteartean, 11:30ean, herriko umeen kalejira kalez kale, Ibaiondotik Itsasaurre plazara. Ondoren, 18:00etan play-back-lehiaketa, Beikozinin. 19:00etan inauterietako dantza saioak kalez kale, Kresala Kultur Elkartearen eskutik. 20:00etan jaiak itxiko dira **AKULIAREN ENTERRUA**, kalez kale, portutik hasita Artelan Elkartearen eskutik. Amaieran, sermoia Zubi Zaharretik.

Josu Etxaburu Latxanbrek 1988an sortu zituen Akula eta Lantzoia Ondarroako inauterietako ikurrak. Bada, aurten, biek 27 urte beteko dituzte. Horrez gain, herriko bertsolariek bertsoak egin zituzten (Arrik, Botxek, Altzaleik eta beste batzuk):

Lantzoia gure zaindari egun hauen boladan, zelako golpea ote dugu gure ganbaran.
Zahar gazteak alkaturik kantu eta algaran, lantzoikeriak egiten zer zoriontsu garan.
Laralara lalala, lalala, lalala... (bis)

Ahotsa aldatu dogu ta mozorroa jarri, baina holan zer gustora adar joka alkarri. Ni
nor naizen ezetz jakin, holako harrigarri, txingarri eta mingarri, zuek ezetz igarri.
Laralara lalala...(bis)

Uxatu ditzagun lotsak, tristurak eta penak, egun hauexek baitira urteko alaienak.
Mozorrotuta kalean Ondarrutar gehienak lantzo handienak dira normal jantzi
direnak. Laralara lalala... (bis)

Poltsikoetan gaur egun inork ez dauka sosik baina inauterietan danok alai ta pozik.
Akulari erreguka Zubi Zaharrian azpitik: "Otzarak arrain betetzen lagundu Ondarruri!"
Laralara lalala...(bis)